

ttipi-ttapa

1990eko Apirilak

35. zenbakia

150 pzta.

Ahate produkzioa
indarra hartzen ari den zeregina



Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu deitu 63 11 88 telefonora

HAMASEI MODULO
(ORRIALDE ERDIA)

12.000 Pzta.

MODULO BAT

900 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.


BI MODULO

1.800 Pzta.


NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.
5. Agenda.
6. Irakurleak mintzo.
7. Hontaz eta hartaz.
- 9/21. Herriz-herri: Bortzirriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Bertizarana, Goizueta, Saldias.
22. Erreportaia. P. LARRETxea
24. Elkarrizketa. JUAINAS
26. Kirolak. MATTARI - MIKEL
28. Osasuna. O.M.T.
29. Aro berriaren atarian
F. ALTZUGUREN
30. Merkatu Titikia.
31. Denborapasa. ENBIDO

Duela seiren bat urte hasi ziren Arantzan lehen saiakerak ahate produkzioan. Urte hauetan, sekulako arrakasta izan duela bistakoa da, bertze herri batzurretan ere hasi bait dira. **22. or.**



Urte bateko bizia duen Bortzirietako Kirol Elkarteak, aktibitate ugari bete ditu denbora laburrean; etorkizun itxaropentsu baten seinale seguruenik. **26. or.**



Kontakizun ugari eskeintzen duen emakumea dugu Luzia Goñi; hamalau ofizio eta hamabost mixeriko langilea berak dioenez. Izan ere, arrantzale, telasaltzaile, sukaldari, talogile, bertsolari... eta emakumea izanik, ama ere bai. **24. or.**



ARKUPEAK Jubilatuen Elkarteak, 1990 urterako ekitaldi programa plazaratu berri du; toki ugaritara iragarritako ateraldiak, omenaldiak eta kultur aktibitateak barra-barra gure adintuen zorionerako. **7. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karmele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

R. Harribilaga, O. Txoperena, P. Apezetxea & Gotzone, J. Larretxea, P. Petrirena, Txema Aldabe,

Iban Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, Txiki, Mikel, Olain Elkarte, M. Altzuarte, P. Larretxea, M. Legarra, F. Altzuguren, Nafarroako O.M.T eta Enbidok.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Tirada: 2.400 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe594300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaie592024

Ituren594183

Sunbilla594283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea251500

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz594242/594342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leizaran515018

HIRUGARRENADINAREDAKO

ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero594335/594336

Azkeneko koma ere leitzen du- zuen horientzat

Jarraitzaile historikoa bazaitugu goratuko duzu, ttipi-ttapa zaharretan herrietako berriez aparte bertzelako kolaborazioak ere argitaratzen genituela; oraingo hauetan faltan botako dituzunak seguruenik. Horrexegatik, kolaborazio horiek galdu nahi ez ditugulako, hurrengo alea, aste santuetakoa, berezi xamarra egitea erabaki dugu. Herrietako berriak ezik, erreportaiak, elkarrizketak, literatur lanak, komikiak... eta holakoez hornitua hartuko bait duzu.

Eta gainera, ez badirudi ere, gu ere hezur eta txitxazkoak garenez, Maiatzerarte Australiara goazi oportetan, pa ke te txintxes!

Denborapasaren soluzioa

DEMBORA PASA

KONTRAPASA

Erantzungarrek jarraitu joan ahal, pasa ezazu lehen bakoitza dagoen lekura. Behelko taula osatu ondoren, nafar erramari baten atzetik gertatuko zara.

1	E	R	R	A	T	A	1	2
2	2	0	R	R	O	A	3	3
3	Y	V	H	E	A	K	4	4
4	H	O	R	D	O	A	5	5
5	H	E	R	R	E	N	6	6
6	H	A	R	A	K	I	7	7
7	B	E	H	A	R	K	8	8

1. Ekokabazko tresna.
2. Tripa handia.
3. Apalak, supak.
4. Morditza handia.
5. Maingua.
6. Haragi saltzale.
7. Prema.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
N	D	T	X	O	K	E	D	I	A	D	K
K	D	H	O	K	E	K	E	K	E	K	E
N	D	M	D	V	V	E	K	E	K	E	B
G	H	O	K	E	K	E	K	E	K	E	B

BORTZIRIAK

Esker eskun eta gonik beheri, zenbaki bakoitzaen hitz bera aterako zara.

1	2	3	4	5
H	A	E	A	L
A	A	O	K	A
G	O	N	A	R
A	K	A	T	V
L	A	K	V	A

1. Altxo. 2. Merkatur. 3. Gernik beherko jantziak. 4. Akabatu, animalak hitz. 5. Aintza.

1	2	3	4	5
A	I	T	A	L
I	R	R	I	A
T	R	A	T	V
A	I	T	O	N
L	A	V	N	A

1. Gaizto. 2. Farrea. 3. Harreman. 4. Aintza, hitz elkarrean. 5. Bakoitzak lau.

Aurtengo edizioak aldaketa ugari

XIX Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Finala apirilaren 8an Goizuetan

Ituren, Lesaka eta Arberatzen ospatutako kanporaketekin lehen fasea amaitu ondoren, hilaren 19an, Ezpeletan eman zitzaion hasiera faseari non taldeka parte hartuko den aintzinako urteetako usadioa apurtuz.

Ezpeletan ospaturiko kanporaketan honako bertsolari hauek osatzen zizuten taldeak: bata; Xalbador, Bittor Elizagoien, Lontxo Arburua eta Laka, eta bertzea; Jexus Arzalluz, J. Migel Arginarena, Arrosagarai eta J. Mari Fagoagak. Lehen taldea gertatu zen irabazle kanporaketa honetan, eta beraz, hilaren 8an Goizuetan ospatuko den kanporaketarako txartela ziurtaturik dauka talde honek. Bertze bi sari ere banatu ziren Ezpeletako kanporaketan, bat -bertsolari bitxienari ematen zitzaiona- Jexus Arzalluzek eskuratu zuen eta bertzea —onenari eman zitzaiona— J. Migel Arginarenak eskuratu zuen.

Apirilaren batean ospatuko da bigarren kanporaketa eta, oker ez bagau-de. Ondorengo bertsolariak osatuko dituzte bi taldeak: J. Fermin Arginarena, Manolo Arozena, Euxebio Fagoaga eta Antonio Olanok bat eta Txomin Ezpona, Ernest Alkat, Martikorena eta Amorenak bertzea. Kanporaketa honetan irabazle gertatzen den taldeak finalerako txartela eskuratuko du eta, lehen erran dugun bezala, hau Goizuetan ospatuko da Apirilaren 8an.

Bertzalde erran, J.P. Etxegoin, Mixel Itzaina, E. Larre, Joxe Urroz, Mikel Bujanda eta Aingeru Epaltzak osatzen dutela epaimahaia.

Beraz, bertsorik entzun nahi baduzue, badakizue nora egin bisita.

30 ORTZIRALA

—**Lesaka**, gualdera, Atxaspi Ostatuan Kiowak musika taldearen kontzertua.

31 IGANDEA

—**Beran**, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Frain.

—**Lesakan**, dantzaldia "Akelarre" taldearekin.

3 ASTEARTEA

—**Lesaka**, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 5etan Herriko Etxean.

4 ASTEAZKENA

—**Bera**, arratsaldeko 16,45etan, Euskalerriko Txirrindulari itzuliaren 3. etapa Ibardinera iritsiko da.

6 ORTZIRALA

—**Donezteben**, goizeko 10,30etan, Nafarroako Gobernua-
ren Ongizate Sozialeko Zuzendaria-
rekin bilera. Lekua: Herriko
Etxea edo Osasun Zentruan.
Gaiak: Malerreka, ekimen berezi-

ko eskualdea; Gizarte laguntzai-
learen egun osorako dedikazioa;
etxe bisitaldiak; Eguneke Zent-
troak; Jubilatuen Txokoa; Zaha-
rrendako erresidentzia.

8 IGANDEA

—**Beran**, Larun Mendi Tal-
dearen ateraldia: Mugarriak.

—**Lesakan**, dantzaldia "Izadi"
taldearekin.

—**Goizueta**, arratsaldean fron-
toian, Nafarroako Bertsolari Txa-
pelketaren finala.

9 ASTELEHENA

—**Igantzi**, Euskara Batzordea-
ren bilera arratsaldeko 7etan Bil-
tokin.

10 ASTEARTEA

—**Bera**, Euskara Batzordearen
bilera arratsaldeko 7etan Herriko
Etxean.

12 ORTZEGUNA

—**Elizondo**, Frontoian Gau-
Pasa AEK-k antolatua "Egan"
taldea.

GOARDIAKO BOTIKAK

—**Martxoaren 31-lean**,
Lesaka, Doneztebe eta F. Iturral-
de (Elizondo).

—**Apirilaren 7-8an**, Etxalar,
Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

—**Apirilaren 12an**, Etxalar eta
F. Iturralde (Elizondo).

—**Apirilaren 13an**, Lesaka eta
F. Lezaun (Elizondo).

OHARRAK

—**Behor bat** bildua izan da
Zugarramurdiko Olasurgo Etxe-
berrian; Alazan kolorekoa, es-
kuin hankean "O" su-marka, es-
kuin begarrian laia.

Jabea pasatu daieiela haren eske.

—**Bortz ardi zakurkume**
emateko ditugu, bertzenaz, hil egin
behar ditugu eta pena da. Tfnoa:
594027 Elgorriaga.



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637404 - LESAKA

MUSIKA DENDA

Laia

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MALDAERREKA S.A.

EHORZKETA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

Mutil itxusiak eta mutil politak

Sail honetan ikusi dudanez, edozein gauzetaz idatz daiteke eta nik proposamen bat bota nahi dut. Harremanak sail horretan sartzeko oso leku gutti dago eta zuzenean ez du ukitzen.

Bueno aurrera! Neska bat naiz, eta oso normala ez izan arren, ni mutiletan fijatu egiten naiz. Gizarteak agintzen duenez, gizonak diren bezala onartu egin behar dira nahiz eta beraiek gutaz fijatu eta kritikatu ere egiten duten, guk ez daukagu horrelako eskubiderik edo behinik behin ez da oso normala gizonak kritikatzeara.

Inguru honetako mutilak oso klasisikoak dira beraien ohituretan eta bereziki arropetan.

Orain udaberrian gaudela eta neguko kazadorak, galtzerdiak, botak eta abar kentzen direnean, bene-

tan apreziatzen dira gure mutilen gorputzak eta egia erran hagitik politak badaude, baina, hortxe dago problema! bere luk-a ez dute batere zaintzen. Ni ez naiz moda jarratzaile amorratu bat baina, bai gustatzen zaidala ikustea jendearen eboluzioa eta ezin uka, gizarte honetan bizi garela txarrerako edo onerako eta azkenean, moda munduan.


Horregatik, proposatzen diet mutil polit horiei, mesedez luk-a pixkat alda dezaten. Kuadrozko atorrak etxean utzi eta (Daniel Ortégak bezala) loratu batzuk erosi, kolore serioak utzi eta bertze batzuk erabili.

A! eta bertze gauza bat, uda alde-
ra, mesedez, maizago dutxatu! ja-

boiak eta urak ez du kalterik egiten eta gainera izerdi usaiak ligatzeko oztopoa da, nesken sudurak oso finak izaten bait dira.

Lesakako FRANTXISKA

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizun edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



KONTZERTUAK
ATXASPI
OSTATUAN
Ortizal gauetan
LESAKA

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS




Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

BEINTZAKO
OSTATUA

Tfnoa: 59 40 14

BEINTZA - LABAIEN



Baztan, Bidasoa eta Male-
rrekako etxe, baserri, pisu,
bajera, eraikitze lurrak
eta eremua duten borden
berri ematen da

Jose Antonio Elizondo
EZKALO

Tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE



Arkupeak, Jubilatuen Elkarteak, 1990 urterako ekitaldiak aurkeztu

MARTIN LEGARRA

Baztan-Erreka-Bidasoako *Arkupeak Elkarteak* urtero ohi duenez, bilerak egin ditu herri guzietan aurtengo programa bere kideei aurkezteko eta orain arte Elkarteak daraman funtzionamendua denon artean aztertzeke.

Lehenik, herri bakoitzeko ordezkariak Donezteben eginiko bilera batean prestatu zuten programa hori eta bazkideek onartu egin dute.


Hauxe da programaren laburpena:

—9 bidaia egun batekoak: Erribera, Aralar, Iparralde, Otsondo, Errioxa, Arantzazu, Lezo, Larun eta Bilbora.

—2 egunerako bidaia Lourdesera.

—5 egunetik gorako bidaia: Mallorca, Benidorm, "Tierra Santa", Jaca, Galizia eta Andaluciar.

—2 ospakizun berezi 100 urte bete dituztenei eskei-



ARKUPEAK, Donezteben eginiko lehenengo urratsak

niak: otsailaren 2an Sunbillan Frantzisko Graziarenaren omenez eginga, eta urtearen amaieran Anizko Sabina Ibarrari egingen zaiona.

—Herrietan egingen diren Jubilatuen egunak.

—Kultur Hamabortzaldia.

Gure aitona-amonei programa atsegina iduritu zitzaien eta zeintzu ote diren egokienak, bakoitza kontuak ateratzen hasia da dagoeneko.

Herrietako bileretan Elkartearen funtzionamendua ere aztertu da eta azpimarratzekoak dira, bertzeak bertze, Jubilatuen adostasuna *Arkupeak* dituen helburu nagusiekin eta jendeak agertu duen eskarona eta poztasuna gure *Elkartearen* egoerarekin: "hagitz konten gabiltza, egun ederrak pasa, toki berriak ezagutu, beti zerbait ikasi, lagun berriak egin... zoriontsu

bizi gara" modu horretako eritziak entzutea pozgarria da denontzat eta batez ere antolatzaileentzat. Eta amaitzeko, eskuarte dabilkigun bertze asmo baten berri ematen dizuet: *Argentinan bizi diren 50 euskaldun honat ekartzea 15 egun pasa ditzaten*. Orain arte, prestakuntza bide onetik doaiela erran behar. Baina gai honen xehetasunak bertze batean emanen dizuet.

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

B RADIO BIDASOA

SUKALDE ALTZARIAK
Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA
KONPONKETAK

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

AROZ BERRI

Nekazal tresneria

- ✓ FERRARI traktoreak, 18 CVtik 50 CVrakoak
- ✓ SAME traktoreak, 35 CVtik 170 CVrakoak, trakzio hidraulikoa 4 zirriketan.
- ✓ GALFRE makinak, belarra bueltatu, bildu eta mozteko.
- ✓ Ziloetatik belarra ateratzeko eta gainerakoe-takoak

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Tfnoa.: (948) 58 10 21 IRURITA



Polikiroldegia hurbilago, urrats garrantzitsuak eman ondoren



Eraikitze lanei aurtan emanen zaie hasiera

ROMAN HARRIBILAGA

Polikiroldegiaren aspaldiko ametsa badirudi inoiz baino hurbilago dagoela egia bihur dadin, uste zenaren aurka eraikitze lanei aurtan emanen zaielarik hasiera. Hori gertatzeko bi urrats garrantzitsu bete dira, futbol zelai berriaren instalakuntzen kokapenerako beharrezko diren lurren eskuratzeari, berorien jabeekin Udala akordio batetara iritsita alde batetik, eta berriki egindako osoko bilkuran Udalbatzak Madrilgo Kirol Goi Kontseilua eta Iruñeko Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Sailaren arteko hitzarmenean bilduriko baldintzei onespenera ematea erabakitzea bertzetik.

Baldintzen zenbait xehetasun

Hitzarmenaren arabera, biztanleko kopuruan oinarrituz, Bera herriari dagokion pabilioia A ereduakoa da. Bere aurrekontua 79.310.000 pezetatakoa delarik, finantziaketaren %33'33a Udalaren kontura izanen

da, bertze bi herenak zati berdinetan Kirol Goi Kontseiluak eta Iruñeko Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Sailak ordainduz. Era berean, Berako Udalak polikiroldegiari bertze gehigarrikerik erantsiko balio, horrek sorteraziko lukeen gailuzko berak ordaintzekoa izanen litzateke. Ere muaren inguruko hirigintza lanak eta ur, argi eta estoldeari dagozkien ekinaldiak edo akometidak, Udalaren kontura izanen dira. Kirol instalakuntzaren funtzionamendu, erabilpen eta zaingoa ere bere ardura izanik.

Projektuaren ezaugarriak

Polikiroldegiaren pabilioia orain Toki Ona alderdian kokaturik dagoen futbol zelaiako mendoitzaren ondoan eraikiko da. Behin betirako projektuaren idazkuntza bukatzeaz badago ere, pistaren neurriak 44 x 22 mtakoa izanen da, eta estaliko duen pabilioiaren aintzinean, iparraldean alegia, sarrera, biltegia, aldagelak eta bertze zerbitzuak jarriko dira.

■ Euskara Mankomunitatearen Estatutua onartua

Osoko bilkuran, Udalbatzak bere onespenera eman dio, Iruñeko Gobernuaren Hezkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako zehaztapenak barne, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Estatutu proiektuari.

■ Ur hornikuntzarako lanak hasiak

Matxain edo Arregi alderditik ura ekartzeko lanak otsailaren azken egunetan hasi ziren. Antolatutako plangintzaren arabera, "Mariezkurrena Eraikuntzak S.L."k zortzi hilabete epean amaitu behar ditu 202.818.753 pezetatako, BEZa gain, aurrekontua daukan lana.

■ Abere hiltegia itxi ez dezaten eskaera

Iruñeko Gobernuari herriko abere hiltegia ez dezala itxi eskatu dio Berako Udalbatzak. Hiltegiak, Iruñeko Gobernuaren diru laguntza eta Berako Udalaren ekarpenekin berriki konpondua izan ondoren, Bortzirietako beharrekiko bere zeregina ongi eta berme guztiekin betetzen omen duela. Eskaera hau Elgorriagako Udalak bere aldetik igorritako proposamena aztertu ondoren eta erantzun bezala hartua izan da. Bertan adierazten denez, NGak eskualde osoan dauden hiltegiak ixteko asmoa omen du, Iruñea, Tuter eta Lizarrakoa ezik; hori dela eta Baztan-Bidasoarako hiltegia eraiki dadin eskatuz.

LESAKA

Ur depositoaren terrenoen erosketa bi aldiz atzeratu da

M.K.T.

Azkeneko bi plenotan Udalak mahai gainean utzi du ur deposito-rako lur eremuen erosketa. Izan ere, ur deposito honek badu bere istorio-txoa. Leku batean eraikuntza hasi eta lurrak kondizioak betetzen ez zituelako, udan, presaka eta korrika, bertze leku batetan kokatzea erabaki zuen alkateak. Honen ondorioz azkeneko plenoan EA eta HBko zinegotziak abstenitu egin ziren Udalak kokalekua aldeztu aurretik ez zuelako ezagutzen. Era berean alkatearen ustetan gai hau nahiko argi-tua gelditu zen bere garaian eta berriro ere honelako zerbait gertatuz gero, Udala oporretan egotea, alegia, berdin eginen duela adierazi zuen.

Atxaspi Ostatuan Kontzertuak

Martxoaren 9an hasi ziren Atxaspi ostatuko kontzertuak, Euskal Herriko bertze zenbait herritan bezala ostatu honek hartu du iniziatiba honelako antolakuntzetan gure inguruan. Dirudienez borts kontzertu

egin eta gero bertze ekitaldi batzuk antolatzea pentsatua dute, antzerkiak, erakusketak e.a.

Martxoaren 30erako Lasarteko KIWAK taldea ekartzeko asmoa dute eta Apirilaren 6rako Ermuako Julio KAGETA taldea.

Haurrak matrikulatzeko epea irekia dago

Aurtengoan dei berezi bat eginen dute Bera eta Lesakako Udalak, Euskara Mankomunitatearekin batera. Dei honekin gurasoak aholkatzea

bestarik ez dute nahi.

Horrela, euskarak gero eta leku gehiago duela gure gizartean, haurren onurarako izanen dela eta gaiteraren kalterako ez dela izanen aipatzen dute.

Bestalde, haurrek etorkizunean euskaraz jakin dezaten eta hizkuntz arazorik izan ez dezaten metodorik eraginkorrena, euskal ereduaren matrikulatzea da. Honetarako "D" erduan matrikulatzeko aukera dute gurasoak, bai Eskola Publikoan, bai Ikastolan.



ETXALAR

Tresneria berria galtzerdi fabrikari

GOTZONE

Orain dela borts bat urte, Etxalarko gazte batzuek elkartu eta galtzerdi fabrika sortu zuten. Galtzerdigintza honetan, lana gero eta gehiago datorkie, eta langile kopurua gutti-ka-gutti berretzen ari dira.

Galtzerdi fabrikazioa, behar bada inork aunitzek ez daki zer gisatako lana izaten ahal den. Makinak Italia-

tik ekarriak dira, gure lurraldean ez dira eginen eta. Urtetik urtera ehungailu hauek aunitz eraberritzen doaz. Azkeneko berrienak arrunt elektronikoak dira, galtzerdiaren marrazkia diska bat paratuz aldatzen dutela. Lehenagokoetan, berriz, eskuz marrazten da makinako pieza batetan. Ehungailu edo makina bakoitzak, berrogei segunduz batzuek, eta hiru minutuz bertzeek, galtzerdi bat egi-

ten du, eta ehule (langile) bat aski da ehungailu mordoskaren martxa eramateko. Galtzerdia makinaz egin eta muturra irekia gelditzen zaio. Mutur hau bertze tresna batez josi eta gero, lisatu egin behar da. Ondotik heldu da etiketatzeko lana eta enbalaketa. Makinatik ateratzean galtzerdi burua josteko, galtzerdia iruntziratu, edo aldrebesko aldera




itzuli, egin behar da, eta lisatzera-koan berriz oneko aldera itzuli.

Lan mota honek honela, gure amautxiak egiten zuten maneratik badu diferentzi pixka bat noski. Baina gaur egun, lan hori errentagarria egin nahi bada, azaldū dudan bezala jarraitzea nahitanahiezkoa da.

Errandako elkarte honek "Lorpen S. Coop." izena hartu zuen eta izen honekin saltzen du bere ekoizkina edo produktua, Euskal Herriko merkatuan eta berdin Espainia-koan hedatzea lortu duelarik.

Suak kaltetutako arbol salmenta

Sutearen ondorioak gairiditu nahi dira, eta lehenbaitlehen. Hondatutako oihana berritu nahi bada, suak ukitutako arbola kendu egin behar, landare berria sartuz. Hori da, berak dioenez, Udalak "Etxebeste anaiak" elkarte lesakarrari burutu dion sal-



mentaren arrazoina. Aierdi-ko 7.750 "insignis" pinu eta Loieta-ko 3.140 alertze dira saldutakoak, zeinak 4.194 m³ zur suposatzen duten. Etxebeste anaiek hamabi milioi berrehun eta berrogeitabi mila pezetatan erosi dituzte bi loteak, eta borts hilabeteren buruan arbolak bota eta eramanak beharko dute izan.

Amerikatik Euskal Herrira etortzeko laguntza

Amerikan bizi den jende euskaldunari, bere sorterrira bisitaldia egin dezan, laguntzea pentsatu du "Arkupeak". Horretarako eskean dabil han eta hemen. Eskari hori Etxalarko Udalari ere egin dio eta honek 120.000 pzta. ematea erabaki du.

IGANTZI

Aurtengo Kirol Programa

OSKAR TXOPERENA

Bortzirietako kirol koordinatzaileak aurkezturik eta udaletxeko kirol komisioren babespean aurtengo kirol programa aintzineratzen ateratzeko ahaleginak egiten ari dira. Ez da erraza programa guzti hau gauza-

tzea, jende aunitz behar baita aste osoa betetzeko.

Hauxe da hasiera batean egin nahi den programa: Astelehenetan: *pilota*, Asteartetan: *joko-garbi*, Asteazkenetan: *eskubaloia*, Ortzeguan: *pilota*, Ortzirala: *pala*.

Hau haurrentzako egindako programa da baina helduentzako ere, zerbaitetaz hasteko, mantenimendu gimnasia hasia da astean bi egunez, 17 lagun apuntatu zirelarik honetarako.

Mus eta partxis txapelketaren finalak

Joan den martxoaren 17an, azkeneko urtetan ohi den bezala, Biltokiko mus eta partxis txapelketaren finalak jokatu ziren.

Lehenengoz partxiseko finala jokatu zen eta honetara helduak ziren bi bikoteak hauexek ziren: alde batetik bi emakume, Kontxita Iturbide eta Korpus Etxeberria eta bertetik bi gizaseme, Jose Ramon Etxeberria eta Lander Sein. Erran digutenez, finala izugarri interesga-



ria izandu omen zen eta lehenengok aipatutakoak irabazi zuten, hau da, emakumeek. Ondotik, mus finala jokatu zuten, alde batetik Jose M. Mitxelena eta Plaxen eta bertze

bikotea berriz Mikel Retegi eta Ifia-ki Hitak osatzen zuten. Final hone-tan gazteenei tokatu zitzairen irabaz-tea, bigarren aipatutakoei, alegia. Gero, afari eder bat dastatzeko

modua izan zuten neguan zehar txapelketa honetan parte hartu duten bazkide guztiek. Eta nola ez, beti bezala Gregorio Mitxelenarekin musikaz alaiturik eman zitzaion amaie-ra aurtengo txapelketari.

ARANTZA

Eguraldi eta animazio ederrean ospatu zen Zaharren besta

JON LARRETxea

Martxoaren 21ean, udaberriaren hasierakin batera ospatu zen besta eder hau. Ehunen bat bildu ziren besta honetara, eguraldi ederra eta giro ezin hobea izan zutelarik egun guztian zehar.

Eguerdiko 12etan meza izan zuten hildakoen oroimenez. Bietan bazkaria Aterpe erretagian. Bazkal ondoan mus txapelketa, Valentin Iparragirre eta Julian Iparragirrek osatutako bikoteak lortu zuelarik garaipena. Bigarren gelditu zen bikotea berriz, Gerardo Leiza eta Esteban Vergarak osatutakoa izan zen. Ilunabarrerarte musika Modesto Ordoki soinuariaren eskutik, adina-ri keinu eginez dantza egiteko

humorea zuten guztientzat.

Bortzak Bat kooperatiba-ren biltzar nagusia

San Jose egunean egin zen bilku-ran hitzegindako gaien artean, urte-ko kontuak eta Junta berriaren hau-taketa izan ziren nagusienak. Diru balantzeak erakutsi zuenez, orain bortz urte egin ziren inbertsioak —almazen berria eta lau silo— ia-ia amortizatuak omen daude. Beraz, Bortzak Bat kooperatiba sasoi berri baten atarian dago eta arrunt sendoturik.

Idazkari laguntzaile lanpos-tua

“Konkurso-oposizioa” delakoa-ren bitartez beteko den lanpostu

honen deialdiaren oinarriak onartu zituen Udalak; baita lau urtetarako beharrezko izanen den hizkuntz perfila, laister Nafarroako Aldizka-ri Ofizialean agertuko delarik.



SUNBILLA

Herriko auzolanak aintzinduz doazi



Lapitxetako malda, iaz auzolanean moldatua.

PATXI PETRIRENA

Aurten ere herriko karriketan zenbait lan egiten ari dira auzola-nean. Baskula zaharra zegoen lekua moldatu egin da, eta baskula bera hondatua zegoenez berria jarriko da. Bidenabar, lekua hobeki aprobetxa-tuz, karretera bazterrean hain eska-sa den aparkatzeko lekua prestatu da bertan, hamabi-hamabortzen bat ko-txerentzat tokia izanik. Txaladabai-ta ondoko bidaxka ere moldatzen ari da, urak kanalizatuz eta ormigoizko



zola emanen. Geroago, Garaigarri karrikan ere pareta bat berrituko da.

Lan hauetan etxe bakoitzetik norbaitek bi egunez ari behar du, lehenbiziko itzulia betexea denez bigarren txanda bat ere etorriko delarik.

Karrika nagusiko labaderoa

Inauterietako komisioak horrela eskaturik, Udalak karrika nagusiko labaderoa hamar urtetako utziko die,

bertan tresnak eta gainerakoak gordetzeko. Martxoaren 2ko plenoan hartu zen erabaki hau. Ordainez, moldaketa beren gain joanen da, nahiz eta materiala Herriko Etxeak jarriko duen.

Hitzaldiak Ulibeltzak elkartean

Osasun mentaleko taldearen buru den Vicente Madozek hitzaldiak ematen ditu hilabetearen lehenbizi-

ko asteartean, batean Donezteben eta bertean Sunbillako Ulibeltzak elkartean. Lehenbizikoetan sexualitateaz aritu zen eta orain alkoholismoaz ari da, hurrengoan gai honen inguruko bideoak emanen dituelarik. Eguna orrialde hauetan iragarriko dugu hurbiltzen denean, eta bidenabar, gai interesgarri hauei buruzko hitzaldietara joateko animatu nahi zaituztegu. Ez bait ditugu maiz izaten horrelako aukerak.

DONEZTEBE

Azkenean Osasun Kontseilua berritu da

TXEMA ALDABE

Zuzenbidean orain dela bi hilabete berritu behar baldin bazen ere, jendea azaldu ez zelakoz, bertze batetarako utzi zuten. Azkenik, Martxoaren 12an bildu ziren Osasun Kontseiluaren partaideak izanen direnak hurrengo bi urtetan. Hauek izanen dira: Udalen aldetik, Jose Miguel Galarregi (Elgorrikoa), Enrike Erregerena (Ituregoa), Juan I. Paul Arzak (Zubietakoa), Jesus Etxart (Bertizaranako) eta izandatu gabea (Urrozkoa); Sindikatuen partez, Daniel Belarra (LABekoa) eta Koteto Juanikorena (ELAkoa); Eskola Kontseiluari dagokionez, Rosa Apeztegia (Doneztebetik); Elkarteen aldetik, Ramon Etxebeste (Doneztebeko guraso elkartekoa), Felipe Ganboa (Arkupeak) eta nahi izanez gero Txema Aldabe (Malerrekako Euskaltegia IKA); Osasun taldetik Diego Duran (zuzendaria), Lourdes Eneterreaga (erizain arduraduna) eta Elena Arrieta (zeladora); Administrazioaren partez Javier Agreda eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialen aldetik Begoña Alberro (asistente soziala).

Osasun Kontseiluaren eginbeharrak

Hiru hilabetetik behin bederen bildu behar dute kontseiluko partai-

deek edo, bertzenaz, presidenteak eskatzen duenean. Honetaz gain, partaideek badituzte beren betebeharrak. Bertzeak bertze, eskualde honetako Osasun diagnostikoan eta berari dagokion plangintzan parte hartzea eta ezagutzea; osasun egitarau edo programetako ebaluaketa eta garapenean laguntzea eta hauen berri ezagutzera ematea; hezkuntza eta osasunaren zaintze eta bultzape nei buruzko ekintzetan jendearen parte hartzea bultzatzea; osasun maila hobetzeko egiten diren iradokizun edo sugerentziak eta iniziatibak bideratzea; jendearen eskubi-deen babespenak bultzatzea, egindako erreklamazioen berri emanen; herrietako kontsultorian behar den ala ez eta horietan astean zenbat egunez nahi den egotea proposatu... e.a.



Baliteke oraingo hiltegia ixtea eta berria egitea

Horixe bera aipatu zuen Galarregi, Osasun Kontseiluko presidentek. Doneztebeko hiltegiaren egoera ezegokia ikusi ondoren, Malerrekako udal guzietako kartak igorri omen dira, hiltegi berri bat egitearen aukera azaltzen delarik.

Honetaz, "Salud Publica" delako albaiteroak bi karta igorri omen ditu Doneztebeko Udalari, hiltegiko okerrak adieraziz, baina oraingoz erantzunik ez du jaso. Bertzalde, Urdazubi, Zugarramurdi, Igantzi, Etxalar, Goizueta eta Leitzako azienden hiltegiak ixtekotan omen daude.

Mendi mutila lanean ari zela hil

Jakina da inguru eta mutil aunitz basoetan arbolak botatzen lanean ari direla. Jakina ere hainbat eta hainbat gaztek bizia galdu edo larriki zaurituak izan direla zoritxarreko istripuetan. Oraingo honetan, Donamariako 40 urteko Joxe M. Telletxeak galdu du bizia Huescaco mendi batean traktoreak harrapatuta.

Hiru auzoetarako kloratzaile berria

IBAN ISASI

Hiru auzoetako depositeoetan, martxoaren 12tik 18ra bitarteko astean, kloratzaile berriak jarri ziren. Lehen, ura kloro gabe edaten bait zen Ituren eta bere auzoetan.

Honekin udalak hornikuntzarako duen araudian pauso berri bat eman da.

Eskola kontseiluak, frontoiaren proiektuaren alde

1990eko martxoaren 9an Eskola Kontseiluak izan zuen bileran, Iturengo Udalak egin asmo duen frontoiaren estaltze proiektuaren alde agertu zen. Izan ere, gaur egun eskolako haurrek ez daukate jostatzeko leku estalirik.

Udalak iazko kontuen berri eman du

Udalak iazko kontuen berri eman zuen 1990eko martxoaren 10ean egindako aparteko bileran. Hau, 52.530.087 pezetatara ailegatzan da.

Gastuen artean, laguntzak, prentsa iragarkiak, alkatearen eta zinegotzien dietak, eraikuntza enprentarako dirutzak, iturgintzarako, zurgintzarako eta bertze gauza zenbaitetarako bideratutakoak daude.


Bertzalde, diru sarrerak 50.041.727 pezetatakoak dira, hauei gehitu behar zaizkie iazko 6.577.326 pezetatako superabita; beraz aurten 4.095.966 pezetatako superabita geratu da.

Kontu hauen berri izan nahi duen edozein pertsonak udalaren idazka-

ritzatik pasatzea bertzerik ez du, bertan egonen bait dira kontu hauek ikusgai.

Herriko Ostaturkoei, pisu berria entregatu

Martxoaren 25ean, Herriko Etxean beraientzat dagoen pisuaren entrega egin zitzaion. Egiten ari ziren obrak bukatu direnez, ostalariak, Iñarreatik pisu berrira pasatuko dira bizitzera. Pisu berriak, hiru logela, komuna, sukalde ekipatua eta egongela haundi bat ditu; guztira 130m².



SALDIAS

170 behi eta aretze buru Kooperatibian

TXEMA ALDABE

Orain dela urte bat edo Saldias-ko hiru gazte elkaturik hasi ziren behitegi bat eraikitzen. Gabriel Urrutia, Julian Erasun eta Karlos Mutuberria izan ziren erabaki hau hartu zutenak. Honen arrazoia zera zen: abeltzaintza eta nekazaritzak eskatzen duen aurrerapena, hau da, tresneri berria, pixarendako parrila, tankeak e.a., norberak berea egin beharrean, zergatik ez bat baino hiruren artean. Honetaz gain, etorkizunari begira bazekiten deus gutti

egiteko zutela bakoitzak zuenarekin. Arrazoi ximple eta errealista badiurdi ere, inguru honetan guttitan betetzen da.

Beraiek diotenez; *nahitaez bat banaka eta saiheska, ez dugu inolako irtenbiderik inguru honetan, gauza guzietan bezala elkartasuna behar da*. Erabaki eta hasi lanean dena bat, hiru familien artean 42 behi, geroztik 74 gehiago erosi zituzten Bretañatik eta ez nolanahikoak garantia osokoak baizik. Behi bakoitzak omen du bere karta non

agertzen den bere aintzinekoen berri. 74 behi hauek, Nafarroako Behi Kooperatibaren bitartez ekarri zituzten, ia 17 milioi balio zutelarik. Gaur egun, 111 behi esnedun, 20 miga eta 40 bi eta sei hilabete artekoak dituzte, hauek aintzenerako.

Erabakia hartu bezain abudo behitegia egiten hasi ziren, dagoeneko barrendik akiturik dagoelarik, kanpotik zerbait falta bada ere. Behitegi honen kostua 28 milioetako izan da, hainbat eta hainbat ordu



eta egun pasatu dute lanean hiru gazte hauek bertan. Bertzaldetik kostu honen %62a Nafarroako Gobernuak subentzionaturik dago, beraei 17 milioi dagokio.

Hasiera ez da ez batere erraxa, bankoek utzitako diruen interesak ordaindu behar dira eta horretaz aparte behiendako bazka erosi e.a., bainan, hala ere emaitzak ere heldu dira, errate baterako bi egunetik 4.300 litro esne inguru saltzen dute. Traktore haundi bat erosi dute baina, hau bakoitzari eman dioten ia milioi bateko dirulaguntzatik.

Honetaz gain, kooperatiban sartuak dituzte 140 ardi. Beraiek diotenez, elkartze honek baditu bertze abantailak, horietako bat ba, hirue-

tariko bat txandatzuz libratzen ahal dela. Beraz, oporrak ere hartzen ahal dituzte. Gure aldetik suete ona.



ZUBIETA

JUINAS

Lopeko Juanto mendira joan da... udaberria esnatu da Zubietan, oraingoan, kasualitatez, data ofiziala errespetatuz. Enarak etorri, mendiko mutilak joan eta kukuak sosik gabe harrapatzea ohizkoa dugu. Tira ba! Beste urte bati emanen diogu sarre-ra.

Udalaren martxoko bileratik hasiko gara, itxuraz odolaren zingurritasuna berak sumatu bait zuen lehena. Aurrekontuak aparte puntu pila tratatu zituzten, baina hori jakina dugu, ostatuaren atariko abisu-bitrinan dago txostena irakurleen zai. Zergaren eztabaida, arront eztabaida gutxira ohituta dagoen udalkide hauetariko gogorrena izan zen: igo bai ala ezaren beharra. Ondarrean urarena igotzea erabaki zen, urtean bi mila pezetara toma bakoitzendako.

Zergarena (inpuestoarena) arazo irriskorra baldin bada, eta horrela da dudarik gabe, argiarena ez da txikiagoa. Konpondu behar dela inork ez du ukatzen; dakigunez, Iberduerori eman behar zaion ala ezean dago koxka. Hori eta beste gauza batzu tratatzeko,



Batzarre deia egiteko gelditu zen Udalari, informazioa pres-tatu, banatu eta geroko eginbeharrak bete ahal izateko, Zubietar bakoitzak bere erabakia hartu beharko du, eztabaida on baten ondotik ahal bada. Majo izanen zen ekainean edo uztailan berandu bezala batzarrea egitea, bertan erabakia nola hartu behar den erabakitzen delarik.

Baino denak ez dira horrelako berri serioak izan. Beno, serioak bai, ez hain astunak esan nahi nuen. Esate baterako: haundiagoa dirudi Iberduerokoa ...oilo, piru eta bildotsen lapurketa baino. Bai... segun eta nundik begiratzen

den! Teresa eta Ezekielen malaletxe galanta jarriko zitzairen. Diruarekin neurtzen ez diren gauzak bait dira. Hori eta beste susmoa, lapurrek ez zutela, seguroaski, beharra haundirik izanen.

Erantzuna

Temosoak behar baldin badituzue, Arantzaz ugariak omen daude. Haizea zela, zubietarrek errua,... eta hori gutxi balitz, orain inozoak gara diote... Inozoak? Baliteke! Hori bai, zubietarrok ez gera hortik zehar aritzen, gure artean karkaxa borroka dela eta, kotxe batek harrapatu arte. Eskuminak Asio eta Imanoli. Besarkada eta guzi!

Baztango Anfasek, lokal berri bat ireki Elizondon

MAÑONE

Baztango ANFASek, Elizondonko Pedro Axular karrika 6-1.D lokal berri bat ireki du. Bertan, ezinduak biltzen dira denbora librean.

Gela batean telebista, bideoa, irrati-kaseta, partxisa, xakeak, kartak, e.a. daukate. Bertze gela batean, bulego bat izanen da laguntzaile bategin, astelehenetan eta asteazkenean 9etatik ordu batetara. Edozein galdera egiten ahal zaio eman dugun helbidera joanez gero edo 45 22 01 telefonora deituz. Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitzaran eskualdeetan ezindu fisikoen zentsu bat ere egin behar omen da.

Egoitza hau lorpen haundia izan da Baztango ANFASentzat, baina epe motzean, lanerako prest dagoen jendea bilatu nahi dute, eginkizun aunitz bait daude egiteko. Juntatik, berriki haur ezindua izan duen bikote bat bilatu nahi da, arazo bera duten bertze pertsona edo izaten ahal dutenei laguntzeko.

Laister batzar orokor bat egingen da aipatutako lokalean eta denbora nahikoarekin zabalduko da deialdia.

BBB edo BUPeko ikasleen gurasoak kezkatuta daude

Oronotz-Mugairen egindako biltzar batean, ikasleen gurasoek bere kezka adierazi zuten Felones jauna- rekin bilera bat izan ondoren; izan ere, honek ez bait zien irtenbiderik

eman zentru berriari buruz. Dirudie- nez, datorren ikastaroa oraingo ikas- tetxean emanen da, San Martin es- kolan zenbait gela egokituko direla- rik ere.

Kartoizko maketen erakusketa Arizkunenean

Martxoaren 19tik 24a artio kar- toizko maketen erakusketa egin zen, jende aunitz hurbildu zelarik.



Oronotz-Mugaireko Institutua

SARA

Sarako herriko antolaketak

OLAIN ELKARTEA

Azkeneko hilabete hauetan pasa- tu balin bazirezte Sarako plazatik, zonbait antolaketaz ohartu bide zi- rezte.

Batzu beldur ziren pareten berri- tzeak galaraziko zuela plaza horri bere itxura goxoa. Ez zaigu batere iduritzen ezer galtzen duela.

Izan Trinketeko patarra edo Ospitaleko pareta, ez ote dute batek

bezein bertzeak argitzen eta garbi- tzen plaza horren itxura?

Gainerat oinez emango balin baduzue plazaren itzulua, atxemanen ditutze han hemenka zonbait ha- rrizko jar-alki zuen buruaren pausa- tzeke.

Ez da ahanzi behar herriko lan- gileek arte hartzen dutela lan horie- taz; Sarako herriak ez luke hartzen ari duen erreista ukanen langile horien lan gogorik gabe.

Espero dugu aldaketa horiek ez direla hortan geldituko.

Proiektuak

Eztabaida askoren ondotik Sara- ko Herriko Kontseiluak presentatu du "Salle Polyvalente" baten eraiki- tzeke proiektua.

Sala hori herriko kiroltzale guzie- ri idekia omen litaike bai eta ere

ikusgarri, dantzaldi edo kultur ekitaldi mota guzietan.

Lehenengo Zahar-etxe ohian, obra batzu hasiak dituzte. Gazteek, Gaztetxea jadanik hor antolatua dute. Gainerat aipu dute adinekoentzat eta Sarako bertze elkarte guzietan partegientzat lekua hor izanen dela.

Erran zaharra

Nahi bada osagarri, kasu martxoan eguzkiara



ZUGARRAMURDI

Gure karrikendakoz ideia batzuk

KORO IRAZOKI

Urdazubir motokross egiten duten bezalaxe, gu ere pentsatzen hasi gara zerbaite iduritsu egiten ahal genuela, gainera herrietatik ateratzen gabe, motoak tarrantean patu ondoren zirkuitoa hau izanen zen:

Plazatik hasi eta Arburuko alde-
rat hartu Bixkarreraino ailegatuz,
hango kaskoko gurutzeari buelta
eman eta Ramontxo saldatuz be-
heiti segitu. Handik Kataleneko tar-
tekatik beheitik karrikarat joan
ginen, bidean Teltegegiko Juli loreak
moldatzen ikusiko ginuen, gero
Barrantxeko Mariajesusek pasadan
beharba "Adios con el corazon"
kantatuko gintun eta beheitixago
Eufemio eta Joxemari bere etxe-
ko atetik "aio" eskua altxatuz egin
zigen. Malastarat ailegatu eta han
poliki buelta eman kasu eman
Veronica seguraski hantxe bere al-
kian jarrita izanen baita, eta ber-
riaz goiti hartuko dugu Etxeandui al-
de-
rat han izanen baita Martina errota
alde batera utzita gu txalotzerat ate-
raia. Altxatene aldean seguraski
Txarrik kontrol de avituallamiento
prestatuko daku bainon gero formal
segitu behar dugu Maxintxenetik
goiti prudentzia pittatekin Antonio



eta bere ardiekin topatzen ahal ga-
relakoz, eta Guantxeko atean burdi-
na jo-ta-jo Jexux izanen baita erra-
nen diogu "Hau Motokross zirkuito
maravillosoa, zain dezagun ongi
horrelaxe". Hatauntak Sansinerat
ailegatuko gara eta han Joxeja-
vien animoak adituz berriaz malda
beheiti suizida hura hartuko dugu eta
orain goibere aldetik pasatuz Kristi
saldatuko ginuen Eskoletako tar-
teka hartzerakoan. Gero Luis Mariren
baratzetan sartu gabe tartekatik ka-
rretera beheiti joanen gara eta Urda-
netxe eta Harriandoko balkonetik
Axun, Andres, Juli eta bertzeak
"aupa-aupa" adituko ditugu. Marti-
neko malda lasaia igateko segu-
raski Norbertok pusada bat eman
zigen eta hola Bixenteneko atetik
furrindaka pasatuko ginuen indarrak
prestatuz Sagardiko patarra tza-
ra hura nolazpate igateko, eta ia bukatze-
koan sobera "akaloratuak" ikusten
badaku Iparreko leihotik Kontxitak

kalder bat ur Sanferminetan bezala
botako daku. Eta azkenean Borda-
kutxeko balkonetik Fanik alde bate-
tik itxikiz eta bertzetik Errekutxetik
Terek META azpitik pasatuko gara,
leher eginak.

Eta orain heldu dire reflexio-
ak. Ez ezazuela pentsa hau egitea erre-
xa denik herriko karrikak direlako,
horrek ez du deus erran nahi. Mo-
tokross zirkuitoa erran dugularik
egitaz ari ginen:

Animaleko maldak, brearen idu-
ririk ere ez, harri kozkorak, eta
politena: nolako ziloak!!, Laxo-
ineko rebeltan ez baldin baduzu kasu
ematen zilo baten barnean erortzen
ahal zara eta handik "auxilio" eska-
tu gabe ez zara aterako; Etxeandui-
ko maldan berriaz deskuido batez
erori eta beheiti-beheiti beharba
infernurraino ailegatuko zien; Sansi-
neko maldan suete pittatekin eta
eskaladore abilizeziak balin baditu-
zu zeone ateratzen ahalko zara...
emozionantea.

Bon, eta finitzeko: badakigu
1991 urtean hasi beharrak direla
karrikak konpontzen, bainan ordu
arte, halako karrikak sofritu behar
ditugun bitartean, holako kontsue-
loak bilatu beharko ditugu.

BERTIZARANA

Sutea Bertizko jaurretan

TXIKI

Martxoaren hemeretzi, San Jose eguna hain zuzen ere, arratsaldeko bostak inguruan, Bertizko txoko honetara ez beharrezko bisitari bat ailegatu zen. Nondik edo hobeki erranez norengandik gertatu zen galdera egiten dugu, baina nahiz eta tristea izan, betiko erantzunaren aintzinean aurkitzen gara. Ondorioz, errabia eta hainbeste landare, zuhaitz eta azinda (nahiz eta tikiak izan) errautes bihurturik gure aintzinean.

Berrogei hektarea gora behera, gaztain eta haritzak gehienak, erre dira; katastrofe bat izaten ahal zen gauza hori gertatu da, haize haundirik ez zelakoz eta suhiltzaileak azkar jokatu zirelako garraren kontra. Sutea probokatua izan zela dio Aladino Colin kontseilariak, bost lekutatik batean hasi bait zen, Narteko mendietan konkretuki.

ASKI DA, NATURZALEAK
IZAN GAITEZEN MESEDEZ!



Bertizko parke naturala

GOIZUETA

Nafarroako Gobernuak, Arau Subsidiarioen behin betiko onespina emanen du laister

KORO ETXEBERRIA

Otsailaren 21ean egindako Udaren ohizko bilkuran, alkateak esan zuen Arau hauek Nafarroako Gobernu hirigintza sailan aurkitzen direla dagoeneko; hiru hilabete barru hasiko direla arau hauek begiratzen; baina berehala behin betiko onespina erabakiko dela, ongi eginak daudelako.

Bi urte itxaron behar izan du eraiketa berriak egin nahi izan duen edonork; ba, pazientzia gehixeagorekin jarraitu eta laister aurrera aterako duzue zuen nahia edo ametsa.

Udalak Askapenaren eskeintza ukatu

Askapenak liburu baten eskeintza egin zion Udalari; HB erosketa honen alde agertu zen, Anizlarrea Taldea ordea aurka. Botazioa egin ondoren alde bakoitzakoak launa

izanik, Anizlarrearen "ez" aurrera ateratu zen; alkatearen "voto de calidad" delakoarengatik.

Herri Batasunaren mozioa

HBk azkeneko Udal-bilkuran mozio bat aurkeztu zuen; Iruñeko

HBko egoitzan, hiri honetara Espainako erregina etorri zen egunean gertatu ziren erasoak salatuz. Anizlarrea taldea abstenitu egin zen. HBko zinegotzien taldeko botoak aurrera ateratu zuten mozio hau.



Mikel Deuna ikastola: proiektu euskalduna eskainiz

IKASTOLAKO BATZORDEAK

Leitza, mendi eta basoen artean urteetan zehar hedatu den Nafarroako herri bat dugu. Urtez-urte bere historia sortuz joan da definitzen zaila den izaera jendearengan sendotu da. Gaur eguneko egoera aurreko guztiaren ondorio bat den arren zer ikusi handirik ez du duela urte batzuk leitzarrek zuten bizimoduarekin konparatu ezker. Leitza ezagutu eta bizitzea tokatu zaigu.

Dena den, herriari izen handia eman dion arloa hizkuntzarena izan da hain zuzen ere, Euskara euskaldunen hizkuntza, leitzarren komunikatzeko bidea.

Eraikiz joan den bide honetan, ikastolak zer esan handia izan du noski. Nafarroako Lehen ikastola eratu zen, bajera bat zen kokalekua. Aspaldiko historian murgildutako kondizioak. Talde txiki batek eman zion hasera duela 25 urte ia.

Hurrengo pausoa, Leitzako monjen konbentua izandako edifizioa prestatzea handituz zihoan tal-

de harentzat. Hemen urtez-urte lan eginez, 1983. urtean zortzigarren maila arte ikasketak betetzea iritsi zen ikastola. Hiru ikasle besterik ez ziren. Orduan pauso handienetarikoa bat emana zegoen. Orduz geroztik makina bat ikasle, irakasle, guraso eta laguntzaile pasa da zentro honetatik. Denborarekin batera edifizioa zahartua eta era ez egoki batetan aurkitzen genuen, dena den, haseratik bultzatzen zen proiektua lehen bezain baliogarria ikusten dugu. Horregatik, beharrezkoak bihurtzen diren kondizioak lortu nahi genuela eta oztupo ezberdineei aurre eginez honako honetan aurkitzen gara orain.

Lehen aipatu dugun bezala 8. maila bitartean eskolaurretik hasita (3 urtetakoak) maila guztiak betetzen dira eta horregatik bakoitzak bere gela izatez gain beharrezkoak diren beste ekipamendu ezberdinaz horniturik dago. Jantokia, bideo eta eskulanetarako gela, liburutegia, errekreotarako barrungo gela, jolastoki berezia... inolako gehiegikeriarik gabe kondizio egokiak toki alai ba-



tetan.

Heziketari dagokionez, aipatutako eskolaurrean, honentzat prestatutako plan hezitzaile berri eta berezia eskainiz. *Haurtxoa* proiektua deritzana. Ohizko gaiak: matematika, hizkuntza, natur eta gizarte, prozesu koordinatu batetan oinarriturik zikloz-ziklo. Honetaz gain ingelesa goi zikloan eta gaztelera 3. mailan hasita.

Heziketa proiektuan, kolektibitatearen eta pertsonaren interesak eta baloreak bultzatzen ahalegintzen gara, partizipazioa, lana eta ikasketak motibatuz. Inguruarekiko, nahiz natura, nahiz pertsonarekiko sentsibiltate berezia dugu helburu.

Errespetoan oinarritzen den gizarte orekatugoa lortzeko prest duden pertsonak lortu nahi ditugu, eta honekin batera kritikoak eta era berean sortzeko kapazak direnak.

Hau dena asmo hutsetan geldiz ez dadin esperientzi berriak sortzen



saiatzen gara: debateak, mahai inguruak, lan bereziak... eta gehigarriak diren gaietan —pertsonaren heziketarako— dinamika, antzerkia, eskulanak, bertsolaritza... ekintza extra-eskolarrak, irteerak...

Errealitate hau konproba dezazuen, egitasmo hau probatzera gonbidatzen zaituztegu.



Azkena

Berako Renault-en lehergailuak eztanda

Iragan martxoaren 21ean, arratseko 10,30ak zirelarik, Berako Renault-en lehergailu batek eztanda egin zuen. Berria idazterakoan kalte materialeen ebaluaketa egin gabe bazegoen ere, eraikuntzako kristalak eta hiru ibilgailuk jasan zituzten ondorioak. Dirudienez,

DYA-n lehendik hartutako dei baten arabera, ETA erakundea izanen litzateke ekintza bereganatu duena. Erran beharra dago ere, aintzineko aldi batetan ere ordezkartza hone-tan berean bertze lehergailu bat jarri izan zela, kalte tikiak sortezaraziz.

EZKONTZAK

Mari Cruz Larraz Soravilla eta **Luis Bilbao Gil**, Leitzakoa eta Bordelekoa, martxoaren 31ean.

Tomas Alcoz Arregi eta **M. Concepción Zabaleta Labaien** (Leitzakoak), martxoaren 31ean.

JAIOTZAK

Mikel Morcillo Artieda, Berakoa, martxoaren 3an.

Oihan Larretxea Agirre, Berakoa, martxoaren 5ean.

Erika Txoperena Aldanondo, Berakoa, martxoaren 5ean.

Maite Irazoki Ubiria, Berakoa, martxoaren 8an.

Maria Zabala Ustariz, Doneztebekoa, martxoaren 13an.

Jokin Telletxea Apeztegia, Doneztebekoa, martxoaren 13an.

Julen Cordoba Indaburu, Zugarramurdikoa, martxoaren 5ean.

Eden Gastiarena Erregerena, Leitzakoa, urtarrilaren 20an.

HERIOTZAK

Ivan Lasarte Fernandez, Beran, martxoaren 10ean, 84 urte.

Patxi Gamio Apezetxea, Goizuetan, martxoaren 9an, 68 urte.

Maria Goikoetxea Indakoe-txea, Ezkurran, martxoaren 20an, 84 urte.

Jose M. Telletxea Sarratea, Donamarian, martxoaren 20an, 40 urte.

Juan Pedro Ezkurra Telle-txea, Eratsunen, martxoaren 18an, 72 urte.

Maria Ezkurra Indakoetxea, Zubietan, 78 urte.

Cristobal Lazkano Sagasti-belta, Leitzan, martxoaren 5ean, 77 urte.

Juan Balda Iribarren, Leitzan, martxoaren 6an, 72 urte.



EUSKAL LIBURUAK
EUSKAL MUSIKA
GAI OROKORRAK

Comedias, 14 - IRUÑEA

ATERPE

jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA



ZALAIN
KARROZERIAK

TXAPA ETA PINTURA
Tfnoa.: 630188 BERA



Tfnoa.: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

LANDABURUA

janaridenda

Tfnoa: 63 50 47

Etxalar

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA

Behoko Plaza 8, LESAKA



CAJA RURAL
DE NAVARRA

Nafarroako Caja Rural-ean aintzi-
nera goaz, gure zerbitzuak zabal-
tzen. Egunetik egunera, bezeroe-
kiko atentzioa hobetzen.

Orain, sukurtsal berri bat ZABALDU
dugu ETXALARREN.

Helbidea: Arotzaren etxea.

Tfnoa: 63 51 16

ETXALAR



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako
mobleak
- ✓ Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN

Bortzirietako baserrietan indarra hartzen ari den zeregina

Ahate produkzioa



Duela seiren bat urte, Beratik etorri eta Arantzan, Larrainea etxeak duen baratzean 200en bat piro gizentzen hasi zirenean, inork guttik pentsatuko zuen dozenerdi urteren buruan 20.000 ahatetik goiti ikusteko aukera izanen zuenik. Bai, sei urte hauetan, ez da denbora alferrik pasatu eta hainbat gauza gertatu ere egin dira. Tarte honetan ahateak Larrainearen baratze ttikia utzi dute, nagusiz ere aldatu dira eta egun Mutikonborda deritzan baserrian ikus daitezke bandada itzelak. Ahateak ez ezik, hiruzpalau gizen-toki ere badaude, ahateak gerizteko zenbait estalpe eta hiltegi bat ere bai.

PATXI LARRETxea

Hainbertzeko ahate pila ikus-teak noizbait bertze gauza pentsatzera bultza dezake ere, ahateen ahazketa ez da uste bezain erraza eta baditu bere misterioak. Piroak jaio berriak direnean ekartzen dituzte, hemen erraten den bezala mugaren bertzaldetik, 10-15 egun dituztenean. Bizpahiru hila-betez bertako balaletan edukitzen dituzte, pentsuaren bidez bazkatuz. Ondoren, hamabortzen bat egunez edo, pentsu kantitatea gehitzen zaie, gizen-tokian sartzeko aintzin-pres-taketa bezala. Behin gizen-tokian sartuz gero, hemezortzi-hogeiren bat egun edukitzen dira gizentzen, onila duen tramankulu baten bitartez arto egosia emanez jatera, gibela hazi eta haragia har dezaten.


Arto egosia egunean bitan ematen zaie

Zeregin hau guztiz garrantzitsua da eta langileak langintza honetan duen mafia eta abilezia garbi ikusten da ahateak hiltzen direnean, zeren ahateak ongi bazkatzen badira, hots;

ez gehiegi ez gutiegi, bere neurrian baizik, gibela haundiagoa—kilo erdia izatera iristea da helburu— eta haragi hobeagoa ateratzen bait zaio. Honetaz aparte, kontu haundia ez edukiz gero, gerta daiteke ahateak digestioa ez ongi egitea eta hiltzea. Izanez ere, esperientzia duen langile bati, 200 ahatetik bortzen bat hiltzen zaizkion bitartean, ez duen bati, doblea edota lau aldiz gehiago ere hiltzea gerta dakioko.

Hiltzerakoan, laupabortz kilo pisatzera ailega daitezke eta kiloerdiko gibela izatera


Behin gizendu eta gero Mutikonbordan bertan hiltzen dituzte aha-teak, ondoren Ibadinera eramaten dituztelarik kontserba lanak burutze-ra. Bertan "pate" edo gibel-gizena ezezik "magret" edo urdai-azpikoa, ahate izterrak, hegalak eta abar prestatzen dituzte gero estatu osoan zehar saltzeko. Izan ere, denok noizbait ikusi izan ditugu "Conservas Martiko", patos de Aranaz izena darama-



ten latak. Azkenaldian gainera, arrakasta haundia lortu dute Martikoren produktuak Estatu Espainarrean zehar, duela egun gutti Catalunyan ospaturiko merkatu inportante bate-tan bi sari nagusienak berak eskuratu bait ditu.

Bertzalde, badirudi langintza honek gero eta indar haundiagoa hartzen ari duela. Batzuk, Europako atea zabaltzen direnean hemengoak konpetitserik ez dutela izanen dioten arren, gero eta gehiago dira beuren baserrietan ahateak jartzeko saiakera burutzen ari direnak. Arantzako Mutikonbordan ahatearen transformazioak dituen sekretuak ikasi ondoren, Etxalarko eta Berako zenbait gaztek ahateak jarri dituzte beuren baserrietan, gizendu eta ondoren Martikori saltzeko asmoarekin.

Ahateak ikusi nahi badituzue, badakizue nora etorri eta gibelik erosi nahi baduzue berriz, nora joan. Baina, goxoa den arren ez gehiegi jan, kalte ez egiteko neurriz egin behar baitira gauzak, bertzenaz, digestio txarra izan daitekeelako ondorioa. Beraz, on egin!



Gaur egun 18ren bat lagun ari dira ahatetan Matikorentzako Arantzako Mutikonborda Baserrian

Luzia Goñi

Arrantzale, telasaltzaile, sukaldari, talogile, bertsolari,... ama izateaz aparte

Munduan denetarik dagoela aspaldiko istorioa dugu, noski! Han edo hemen jaioak, aberatsak ala behartsuak, jakintsuak ala harroak... dagoen jendaira, alor honetan atseginenak dena den, benetakoa dugu. Barne-aginduak obedituz, egiten dutena egiten dutelikan barruko sasoi guztia ematen dutenak, alegia.

Horietako bat dakarkizuegu honetan: emakumea, ama eta amona, alarguna, sekulan ez baktaria... bizitzeaz gozatzen duen Luzia Goñi.

Hamalau ofizio eta hamabost mixeriko langilea, bere idurin... arrantzale, telasaltzaile, sukaldari, talogile, bertsolari,... ama izateaz aparte. Ez dago batere gaizki! Nahitanahiez kontakizun ugari duen emakume honengana baldin bagatoz, gaurkoan, gertakizun konkretu bat entzutera heldu gara. Bizimoduak, dituen jirabiretan elkartu eta ezagut arazi zigunetik arras txunditu-ta utzi ninduen hauxe:



Luzia bere etxeko atarian

Gerra Zibilaren garaia dugu. Luzia oraindik gaztetxo bat, ume bat dugu.

Zenbat urte zenituen?

Sei bat urte izanen nituen. Non bizi zinen? Jaio, Aizaozko Olan jaioa naiz. Aita arotza nuen, perratzailea, erdi-albaiterua,... eta urte hartako maiatzaren aldera, maiatzaren 15ean justuki, etxe berrira pasatu ginen, Gartzarongo Bentara. Hori 1936ko maiatzean izan zen. Uztailaren 18an

zoritxarreko gerrahura hasi zen...

Luziak galdera pizgarriaren beharrik ez duenez gero, hementxe duzue bere kontakizuna:

Sei urte nituela, gaur izanen balitz bezala daukat gogoan, egun batez, abuztuan, goizeko hamarrak aldean Lekunberriko Zibilak agertu ziren. Nere aitaz galdezka etorri ziren... Egun hartan behi bat ikusterera joana zen Eltzaburura.

Aita detenitzeko orde-na zutela esan ziguten Zi-

bilek, eta gure amak galdetu zien zerengatik, eta haiek, etxean radio bat genuela eta "Onda Roja"n jartzen ginuelakoz zela. Aita mezetara ez zela joaten eta antzeko gauzak ere, denak.

Aita etorri zen eta berari esan zioten ez detenitu bakarrik, Jauntsarasko hariztian bi tiroz hil behar zutela, eta guri, negarrez ginauden hiru senidetxoei, aitaz despeditzeko...

Nola edo hala, Gartzarongo apeza zen kar-

listadetako ofiziala izandakoaren laguntzaz, guztia geldiaraztea eta aita libro gelditzea lortu zutela dio Luziak, radioaren dekomisioa ezik; Lekunberriko Ayestaran Hotelean zegoen gizon aberats bati eraman bait zioten Zibilek,...

Hamalau urterekin nire Lekunberriko Hotelean sukaldaria laguntzen egondu nintzen —segitzen du Luziak, bere biziaren beste gertaera garrantzitsu bati lotuz— hiru urtez, eta han-

dik joan nintzen neskame Erreterira, Taberna bate-tara. Han ezagutu nuen lehenengo nobioa, bertako arrantzale bat. Oso mutil jatorra baino, ezkontzeko ginaudela, negu aldera, haserratu nintzen.

Ezkontza prestatzera e-txera joan zen Luzia eta hain triste omen zegoen —dio— aita susmo txarretan hasi bait zitziola.

Egun batez beste koar-totik entzun nuen amari esaten ziola: "Eztaikit Lu-ziak zer dun, pekaturen bat daukan edo!" eta amak erantzuten ziola: "Zuk pentsatzen duzun pekaturik ez dauka!"

Beste egun batez Eibarko ehiztari batzuk neskame joateko eskatu zioten, Ziantzar harrijasotzai-learen tabernara, Luis Agerre Igoa eta Luxiaren arteko apostu bat prestatzen ari zirela. Han bere senarra izanen zena ezagutu zuen, Elgoibarren "Bodeguilla" bat zuena. Ezagutu eta egun batzue-tara...

Arrateko erromerira joan nintzen eta mutil hori han zegoen... hasi ginen hizketan... laguna behar zuela, ea noiz neukan jai, pixka bat hitzegiteko. Ostegun batez gelditu ginen eta berak andregaiarekin izan zuen frakasua kontatu zidan. Bergarako baserri

batetakoa omen duela... ezkontzeko punttuan zeude-nean neskak sei urteko alaba zeukala jakin zuen, galdetu eta ahizparena zela kontestu zion. Nik berriz, ezkontzeko batere gogorik gabe nengoela esan nion.

Holaxen ginauden biok. Laister prestatu genuen ezkontza eta bestea itsaso-iik etorri orduko ezkondu-ta nengoen... disgusto haundia hartu omen zuen!

Bodegan jarri ginen biok, ederki gainera,... Hiru bat hilabetetara, konfida-tza hartzen hasia nintzela, gizon bat egunero etortzen zen eta hura ikustearekin ez dakit zer pasatzen zi-tzaidan. Gauza txarren ba-tetik ezagutzen nuela su-matzen nuen. Ez nekiennon edo zergatik. Hainbeste buelta eman nion senarrak

erotzen ari nintzela uste zuela. Medikutara eram-nahi ninduen.

Gau batez, ohatzean nengoelarik, esnatu nuen senarra goizeko hiruak aldera, zein zen gogoratu nuelako: Gizon hura ni txikia nintzela gure aita detenitzera eta hiltzera joan zena zen. Senarrak berearekin segitzen zuen eta ni ez negoen batere trankil... Horrela, senarra ez zegoen batean gizon harengana hurbilduz gal-detu nion:

—¿Vd., por casuali-dad, se apellida Gutie-rrez?

—Si,—erantzun zidan berak—

—¿Vd. estuvo de cabo de la Guardia Civil en Lekunberri?—eta be-rak berriro baietz—.

—Pues tengo un mal recuerdo de Vd. Cuando yo tenía siete años sin cum-plir Vd. vino a detener a mi padre, nos hizo salir a la puerta a los tres herma-nos... a ver si recuerda Vd. Soy hija de Domingo Gofñi, de la Venta de Garzarón...

Orduan bai, nega-rrrez hasi zen. Jende guzia ixil-ixilik gelditu zen, baina nik bai deskantsu ederra hartu nuela! Ez nengon erotu-ta...

Handik sei hilabeteta-ra hil egin zen.

JUAINAS



Bortzirietako Kirol Elkarte, harrobia bultzatzen

MATTARI

Orain dela urte bat sortu zen "Bortzirietako Kirol Elkarte" k lortu izan dituen emaitzak ezin hobeak izan dira. Lehendabiziko urtean lau talde Federatu atera zituen gazte mailan (2 eskubaloioak, saskibaloiko bat eta bertzeko bat futbol-salakoa) denetara, 55 neska-mutilek parte hartu dutelarik. Datorren urterako bertzeko bi talde —eskubaloiko kadeteak eta futbol-salakoa mutilak— ateratzeko ideia dago.

Zonalde hau harrobi ederra izan daitekela ikusirik, "Bortzirietako K.E." k Bortzirietako herri guztietan eskubaloio ikastaroak martxan jarri ditu, horrela, 6 monitore —Elkarte-ko jokalariek gazteak— joaten dira Etxalar, Igantzi, Arantza eta Lesakara hurrei eskubaloioaren ezagupen orokorrak ematera. Denetara 150 haur baino gehiago dira ikastaro hauetan parte hartzen dutenak, kopuru ederra egitan eta etorkizunari begira itxaropen haundia. Era berean Elkartek honek saskibaloia bultzatzen duenez, lehenbiziko esperientzia izanen du

Lesakan 65en bat hurrei ikastaroak ematen.

Harrobia bultzatzeko filosofia hau mantenduz, Etxalar, Igantzi eta Arantzan hasiak daude bertzeko kirol espezialitate batzuk bultzatzen, horrela, Joko-Garbi —Txistera— pilotaspezialitateak martxan dago 65 neska-mutilek parte hartzen dutelarik. Espezialitate hauetatik aparte, astean bi egunez eskuz eta egun batez palaz ikasten ariko dira aipatutako herri hauetan. Gisa honetan Bortzirietako mailan kirola egin nahi duenak, egiteko aukera ederrak ditu.

1990eko Plangintza oraindik gelditurik


Berriz ere aipatzeko beharrea aurkitzen naiz Eskualdeko Kirol Koordinatzailearen afera oraindik konpondu gabe dagoela —nahiz eta aintzineko alean ustez konpondua zegoela erran—, eta ondorioak zeintzuk diren ederki bada-kizue: 600 haur gelditurik, aurtengo monitore ikastaroak ia galdurik, 1990eko Plangintza egin gabe 4.000 pertsonen kalterako eta jadanik hainbat eta hainbat aktibitate galtzen ari dira.

Azkeneko alean egoera honetan egotearen errua Nafarroako Gobernuarena zela erraten banuen ere, Baztan-Bidasoako eskualdea osatzen duten 25 udalei ere nire kritika pertsonala egin nahi diet eta zuzenki Baztangoari, bere kirol zinegotzia den Pedrosa Jauna baita, 25 udalako Kirol Zuzendaria eta indar gehiena daukana.

Hiru hilabete Eskualde mailan dena gelditurik egotea ez ote da garrantzitsua? Zer egin dute Udalek —zuzendariak batez ere— afera mugitzeko eta arazoari soluzioren bat bilatzeko? Ez ote zaie axola 4.000 pertsona mugitzen dituen kirol aktibitateen plangintza bat oraindik egin gabe egotea

eta ez egiteko arriskua izatea?

Uste dugu, arlo honetan mugitzen garenok: Kirol Koordinatzaileok, kiroltzaleok eta hurrek bakarrik sentitzen dugula hurbiletik arazo larri hau, eta soluzio eman behar duten pertsonak eta posibilitatea duzuenoiek, hau da, udal-eko zinegotziek, *ikusten duzue?*



Malerrekako 5 korrikalarik, Espainako Kros Txapalketan parte hartu zuten

MIKEL IBARROLA

Joan den martxoaren 11an ospatu zen Lizarran eta hauexek izan ziren, Nafarroako Selektzioarekin parte hartu zuten Malerrekako 5 lasterkariak:

Manolo Otero, Doneztebekoa, senior mailan (Beste Iruña); Shanti San Miguel, Doneztebekoa, junior mailan (Pamplona Atletico); Juan A. Migeltorena, Legasakoa, junior mailan (Maldaerrika K.E.); Mixel Aginaga, Nartartekoa, junior mailan (Madaerrika K.E.) eta Maika Ariztegi, Iturengoa (Maldaerrika K.E.).

Shanti San Miguel Nafarroako txapelduna gelditu zen eta 19. postuan gurutatu zuen helmuga. Pamplona Atletico Taldeak fitxatu zuen iaz eta Larrabide Kirol Zentruan aritu da entrenatzen beka baten laguntzaz.



Leurtzan egindako Txapelketa batetan, Shanti San Miguel, erdialdean —Beste Iruña—

Maika Ariztegi azken momentuan sartu zen Nafarroako Selektzioan eta Nafarroako hoberena izan zen Lizarran. Egindako kanpainagatik, Larrabide Kirol Zentrua joateko ze-

rrendan dago aurten. Euskadiko Txapelketan, otsailaren 18an Donezteben, 10garren postuan gelditu zen eta Nafartarren denbora hoberena lortu zuen.

Malerreka Pilota Eskolak, ekintza ugaritan parte hartzen ari

Momentuan Baztan-Malerreka-ko Negu Txapelketan 20 pilotari jotzen ari dira; Bidasoako Txapelketan bertze 8 pilotari eta prestatzen ari da baita, I. Memorial Jose-txo Ezkurra-Malerrekako Txapelketa, apirillean hasiko dena.

Malerreka 3 - Arantza 1

Joan den Otsailaren 25ean Malerrekako pilotariek Arantzakoan kontra jokatu zuten eta hauexek izan ziren emaitzak:

Umeetan:

Deskarga-Baleztena (Malerreka) 0
Agesta-Errandonea (Arantza) 16

Haurrak:

Retegi-Apeztegia (Malerreka) 18
Agesta-Errandonea (Arantza) 9

Gaztatxoak:

Arantzak ez zuen pilotaririk presentatu.

Helduak:

Ordoki-Urrutia (Malerreka) 22
Ordoki-Telletxea (Arantza) 14

Baztango Basaburuko Pilota Txapelketaren finala jokatu zen

Gero, Berruetarrak eta Aniztarrak bazkaria egin zuten Beolan

Martxoaren 18an burutu zen Anizko Mendiarte pilota lekuan, Basaburuako Pilota Txapelketaren finala. Garaileak, Berruetako Pello Arretxea eta Baleriano Etulain izan ziren, 26 tanturekin eta beraz bigarrenak, Anizko Zelestino Barrenetxe eta Berruetako Felix Arretxearen artean osatutako bikotea gelditu zelarrik. Gero, zaharrak eta gazteak, 120 denetara, Beolan bazkaldut zuten.

Alkoholari buruzko mitoak

Gehiengoaren eritziaren kontra:

- ✓ Alkohola ez da elikagai ona: mineral eta bitaminen iturri bezala, ez du inolako interesik.
- ✓ Alkoholak ez du aktibitate sexuala gehitzen.
- ✓ Alkoholak ez du indarririk ematen eta ezta ere lan fisikoa burutzera laguntzen.
- ✓ Alkoholak ez du jateko gogoia gehitzen.
- ✓ Alkoholak ez du katarrorik sendatu edota minarik ahultzen:
toteldu egiten du soilik.
- ✓ Alkoholak ez du pertsona adoretsuago bihurtzen; zentzugabeago baizik.
- ✓ Alkohola, uste denaren kontra, ez da gizonentzako egindako gauza: edozeinek erabil dezake nahiz eta beharbada, gizonak izan gehien abusatzen dutenak.
- ✓ Alkoholak ez du hotzari aurka egiteko balio, aitzitik, gorputza hoztu egiten du hotzaren aurka defendatzeko ahulago utziaz, edariak eragiten duen modorragatik hotza guttiago sumatu arren.
- ✓ Alkoholak ez gaitu atseginago bihurtzen, inhibizioa gehitzen digu eta honen ondorioz, aunitzetan, behar ez genituzkeen gauzak erratera bultzatzen gaitu.
- ✓ Alkoholak, edozein eratara aurkeztua edo gradu guttiago edo gehiago izan arren, alkohola izaten jarraitzen du: bai likoreak zein ardoak, garagardoak edo sagardoak, alkohol etilikoa darama.



NAFARROAKO
OSASUN MENTALEKO TALDEA

Horoskopoa

Aries

Mitoak dio *Frixo* hiltzera eramán zutela egin ez zuen gaiztakeri batengatik. Urrezko ahari baten gainean ihes egin zuen *Hele* bere arrebarekin baina, hau erori egin zen. Geroago *Frixok* aharia hil eta *Zeusi* eskeini zion, eta honek ahariaren iduria ortzean paratu zuen betirako.

Udaberriaren hasiera

Hilabete honen 20an, gaueko 10ak eta 20etan udaberria edo primabera hasten da eguzkia Ariesen sartzearekin batera. Naturan argi nabaritzen da Ariesi dagokion pertsonalitatea: landareen lore eta hostoak abiatzen dira, belardiak berdatzen, txoriak agertzen, eta eguna gaua baino luzeagoa egiten da.

Aries arketipoa

Aries su zeinua da, kardinala eta positiboa. Suak ematen dio bizitasuna, adorea, eta bere indarretan kofidantza. Kardinaltasunak ematen dio aktibitate gogoa, edozein ekintzari lehen bultzada hori emateko ahalmena. Eta positiboa izatea da extrabertitua izatea edo antzeko zerbait: nahiago du ingurua edo arazo konkretu bat bere buruari egokitu bere burua edo jokamodua aldatu baino. Hiru ezauzgarri hauek (sua, kardinala eta positiboa) bateratzean agertzen da Ariesen nortasuna: genio bizikoa, odol beroa, ezin-egona, pizpita, ausarta,

eta bertzeek diotenez, berekoia. Hau da libertatea eta indibidualitatea edo norberetasuna Ariesentzat aski gauza garrantzitsuak direlako eta Ariesek bere modura ententitzen dituelako.

Mental arloan intuitiboa da eta egoerak globalki begiratzén ditu, xehetasunei kasu guti eginez.

Pixkanaka biziak erakutsiko dio ez duela hain exigentea izan behar, zakarkeriak utzi eta diplomazia erabili behar dela.

Zorionak Ariestar guztiei!!

FERMIN ALTZUGUREN



ETXEBIZITZAK

-Etxe edo baserria erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Tfnoa: (948) 59 40 54

-Doneztebe. Pisu bat alokatzen da bi bizitzako etxe batetan; baratze eta guzi. Hilean 12.000 pzt. eta 4 urtetarako kontratua. Tfnoa: 594054

-Arantza. Baserri baten berri ematen da. Argia, ura eta telefonoa-ekin. 3 hektarea. 7.500.000. Ezkalo. (948) 594054.

-Doneztebe. Pisu baten berri ematen da. Sukalde ekipatua, propa- no kalefakzioa, 3 logela, egongela lurko suarekin, despentsa, bainua eta ganbara. 90m²erabilgarri. 6.500.000 Ezkalo (948) 594054

-Legasa. Pisu baten berri ematen da. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bainua. 90 m². 4.900.000. Ezkalo. (948) 594054

LANA

-Denda batetan edo haurrak zaintzen egin nahi nuke lan. 16 urte ditut. Tfnoa: 594054

-Igeltsero laguntzailea behar da. Doneztebe aldean lan egiteko eta 16 - 19 urtetakoa. 6 hilabetetik 3 urtera- teko kontratua eginen zaio. Tfnoa: 594054

-Kuardroak, eskulturak eta ko- mikiak egiten ditut. Tfnoa: 594054

-Tallak egiten ditut. Legasako Iñaki. Tfnoa: 594054

SALEROSKETAK

-Udaberrirako bizikleta baten jabe izan nahi baduzu hemen duzu aukera. Nahiko ongi dago eta merke merkea, 25.000 pztatan. zurea izan daiteke. 631188 Tfnoa.

-Ordenadore polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-Sukalde eta frigorifiko indus- trialak saldu edo etxerakoez aldatu nahi ditugu. Tfnoa: 637 854

-Idazmakina elektronikoa sal- tzen da. CANON markakoa. Interes- satzen bazaizu deitu 631188 telefo- nora.

-Era guzietako mogleak erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Tfnoa: 594054

-Zurgin lanetan aritzeko, kon- pakta bat erosi nahi dut. Tfnoa: 631188

-Kanpin denda eder bat salduko nuke, merke, konbenientziako pre- zioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Astebu- rutan fijo, astegunetan atsaldetaz eta gaez.

-Frigorifiko eta labadora baten beharrean nago. Modernoago bat ero- si eta zaharra non sartu ez badakizu, nik eginen diot lekua. Diru kontua konponduko dugu. Tfnoa. 637796 Patxiz galdetu.

-Bigarren eskuko altzarien be- rri ematen da. Egokiak alokatutako pisuak mogleztatzeko. Tfnoa: 594054

DENETARIK

-Era guzietako mogleak berri- tzen ditut prezio onean. Nola zaindu behar diren ere aholkatzen dut. Tfnoa: 594054.

-Tasazioak egiten dira. Etxeak, baserriak, mendiak, bordak... Ezka- lo. (948) 594054

HARREMANAK

-Txakal ; nere bihotzeko azukre koxkorra. 24ean Lesakan ikusi zin- tudan igerian ikasten. Zure flotado- rea nirekin konpartitu nahi baduzu, ager zaitez apirilaren 2an gaueko 9etan Koxmenean. La rubia despam- panante.

-Saltzaile txatxiarentzat. Jabe- tzo, bere azukre koxkorren parte- tik. Apirilaren 1ean, arratsaldeko 6etan Lesakako Goxotegian. Azukre koxkorra.

-Eskuminak Arantzako Iñaki Tabernari, bere anaiari, Jose Luisi eta eta kuadrila guziari. Lesakako Begofaren partez.

ORRIALDEHONETAKO IRAGARKIAK DEBAL- DEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU. Testua: _____ _____ _____ _____ <i>ttipi-ttapa</i> Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188	<i>ttipi-ttapa</i> ZEURE ETXEAN HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!! IZEN-DEITURAK _____ HELBIDEA _____ HERRIA _____ <i>ttipi-ttapa</i> Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188
---	---

HITZ GEZIDUNAK

BERTSO EGILEAK	▼	DAGO	▼	TXINE- LETAN	▼	ASIAKO HERRIA NEGELEN EDARI	▼	BOTEAK
AMENA- ZUAK		BUSTI						
▶		▼		<i>t</i>		▼		▼
MUSIKA NOTA	▶		JAU RTI- KETA	▶				
IDI			JANARI	<i>t</i>				
ZAIN			ARRAZIO					
▶			▼	<i>i</i>		EZTAI- NUA	▶	
						JAINKO		
						EGYPTIAR		
... IKUSI, GORRIAK	▶			<i>p</i>		▼	FOSFORO	▶
HARRAPA EZAK							KAKATI	
▶		OILO TTIKI	▶	<i>i</i>			▼	
		OGI, HITZ ELK.						
KULUS- KADA	▶	▼		POTASIO	▶	EZ EME	▶	
ZENBAKI						LAWREN- TZIOA		
▶			BURU KOLPEA	▶		▼		
			499	<i>t</i>				
KONTSO- NANTEA	▶	IDI, HITZ ELK.	▶	<i>t</i>	NORAT	▶		
ERRAN DEZADAN		BURDI- NOLA			ATZIZKIA AUTO- ETAN			
▶		▼		<i>a</i>	▼	ISTU	▶	
						EUSKAL FONEMA		
ALUMI- NIOA	▶		TANTA LODIA	▶		▼		
DARDA- RA			KONTSO- NANTEA	<i>p</i>				
▶			▼	<i>a</i>	ZAREN HORREK	▶		



TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA GOGORRAK

20 HP TIK 80 HP BITARTEKOAK



NAFARROA OSORAKO BANATZAILEA

GILLERMO TXOPERENA

IGANTZI - TLFNOA 63 79 95